

PORTUGALETE. Kultura Sailaren jarrerea txarretsi dau Abertzaleak eta Ezkertiarrek taldeak

Gabonetako egitaraua kritikau dau AEK: «euskerea baztertzen dau eta»

«PSE-EE ez da alderdi egokiena Erdi Aroko torturearen ganeko erakusketea gertetako»

Irune Berro |

Portugaleteko Udalak prestatu dauen Gabonetako programea kritikau eban atzo Abertzaleak eta Ezkertiarrek udal taldeak, «euskerea baztertzen dauela», besteak beste. Gabonak dirala eta, umeei eta nagusiei zuzendutako egitaraua atondu dau Udalak; hainbat kultur ekitaldi gertatu ditue datozan egunotarako.

AE taldeak, baina, zalantzan ipini ditu egitarauak jasoten dituan ekitaldietako batzuk. Izan be, Kultura Sailak antolatu dituan bost antzerki saioetatik hiru bakarrik egingo ditue euskeraz. «Portugaleteko ume gehienak B eta D ereduak dirala aintzat hartu ezker, zentzunbakoa da urterik urte Udalak euskerearen ganean agertzen dauen jarrerea; euskerea baztertu egiten dabe PSE-EEK eta PPK», adierazo eban AE taldeko zinegotzi Izarra Gisasolak.

Horrezaz ganera, Erdi Aroko torturearen inguruan Kultura Sailaren *Herejeen mailua* izeneko erakusketeari buruz, «PSE-EE ez da alderdirik egokiena torturearen ganeko erakusketea gertetako», uste dabe abertzale eta ezkertiarrek. Eta Erdi Aroan ez eze, gaur egun be torturatzen dala gogoratu arazo eutsen Gisasolak PSE-EE eta PPri.

Era berean, Gisasolak azaldu

ebanez, Errege Magoak eta Olentzero antolatzeke Udalak gorde dituan aurrekontu atalak oreka bakoak dira: 1.800 euroko atala gorde dabe Olentzero antolatzeke, eta 18.000 euro Errege Magoen ekitaldirako. «Guk ez dogu gura Errege Magoak gertetako aurrekontua

ALDE NABARMENA

1.800 euro bideratzen ditu Kultura Sailak Olentzero antolatzeke, eta 18.000 euro Errege Magoen ekitaldia egiteko

murritztea, eskatzen dogun bakarra da Olentzero egiteko be 18.000 euro emotea».

Hortik aparte, Gabonetan eta urtean osoan kultur ekitaldiak ganoraz egin ahal izateko, Cine Mar eraikina kulturagune bihurtzeko eskatu eutsan AEK gobernu taldeari.



KRISTINA BERRAIN

Repelegako San Kristobal parrokiatik urtengo dau Olentzerok, arrastiko bost eta erdietan.

TRAPAGARAN. Dantzak, ipuinak, txalapartearen musikea eta joaldunak batuko ditue antzezpenean

Gabonetako errituak eta guzti, Olentzero ikuskizun dotorea egingo dabe herriko alkarteek

Erredakzinoa |

Antxinako usadioek eta errituek osotuko dabe, besteak beste, Trapagarango hainbat kultur alkartek hilearen 24an egingo daben Olentzero ikuskizuna, antzezpena.

Garraxi euskera alkarteak, Danetarako Danok dantza taldeak, AEK-k, Itxaropena ikastoleak, Basetxe gaztetxeak eta Udal Euskaltegiko langileek antolatu dabe ekitaldia. Eta dantzak, ipuinak, txalapartearen musikea eta joaldunak batuko

ditue antzezpenean. Olentzero egunean egingo dabe abenduaren 24an, Itxaropena ikastolan, arrastiko bostetan; baina aurretik, abenduaren 19an, etzi, *Ez dok hamahiru hitzaldi musikatu* egingo dabe Julen Lekuona musikariarekin. Iluntzeko zortzietan Olaso jauregian izango da zitea.

Olentzeroren antzezpenak bederatzi agerpen izango ditu. Lehendabizikoa agurra da; joaldunen, dantzarien eta txalapartarien txandea. Bigarren agerraldiak ogiaren erritua jasoten

dau, Gabonetako erritua, hain zuzen. Hirugarren atalean, itsasoren kresal usaina igarten da, Kaxarranka eta Boga Bogarekin. Laugarren atalean, barriz, *Euskeraz euskaldun* oihua zabalduko dabe. Eta bosgarren agerraldian, gaueko pertsonaiak azalduko dira. Bertan azalduko dabe Euskal Herria une ilunetan bizi dala eta dantzak eta musikea horren adierazle dirala.

Seigarren agerraldian, alkarlanerako mezua bidaliko deusie hantxe batutakoei, eta Hator-hator abestuko dabe, zazpi garren atalean. Zortzigarren agerraldian neguko solstizioa eta *Gabonzuria* izango dira nagusi. Eta azkenik, bederatzigarren agerraldian azalduko da Olentzero. Irrintzi batek esnatu-

ko ditu familiakoak eta ikazkinak opariak emongo deusiez.

Itzulpenak egingo ditue euskeraz ez dakienentzat

Euskeraz ez dakienek be Olentzeroren antzezpena ikusteko aukerea eukiteko kontakizunaren eta agertokiko alkarrizketen itzulpenak egingo ditue, horma irudien bidez. Izan be, ikuskizunera batzen diran herritar guztien artean zabaldu gura dabe antolatzaileek, Olentzero ume eta nagusiendako panpina baino zer edo zer gehiago dala. «Ez da be mitologiako pertsonaia isolatua, Euskal Herriaren ondarearen osagarri da, dantzak, errituak, abestiak eta euskerea diran moduan», nabarmendu dabe antolatzaileek.

LAGURAEAN

BARAKALDO

Gabonetako jaia egingo dabe Gurutzetako ospitaleko umeein, gaur eta bihar

Gabonetako jaia ospatuko dabe gaur eta bihar Gurutzetako ospitaleko umeein. Bilbao Basket saskibaloitaldeko jokalarien bisitea izango dabe gaur umeein. Bihar, barriz, *Txapitelen showa* ikuskizuna, arrastiko bostetan. Ondoren, opariak jasoko ditue, eta Euskaltel taldeko txirrindulariak eta Joane Somarriba izango dira eurekin. Merienda bategaz eta gabon kantak entzunaz amaituko dabe eguna.

BILBO

‘Prestige’ ontziak eragindako kalteak ordaintzeko kontzertua

Kontzertu berezia egingo dau Iralabarriko San Antonio abesbatzeak *Prestige* ontziak eragindako kalteak pagetako dirua lortzeko. Bilboko Donejakue katedralean egingo dau, hilaren 28an iluntzeko zortzietan. Horrezaz aparte, Gabonetan urtero egin ohi dauen moduan, beste bost kontzertu egingo ditu datozan egunetan abesbatzeak, hainbat alkarterendako dirua atarateko.

GALLARTA

Trianoko mendietako mearen inguruko erakusketea gertatu dabe

Trianoko mendietako mearen ganeko erakusketea antolatu dau Trianoko mendietako erabiltzaileen plataformak. Eguenean, iluntzeko zazpi eta erdietan inaugurauko dabe. Angel Aja, Lucas Alcalde, Ismael Fidalgo, Marcelino Bañales, Jose Agustin Iza eta Amalio Garcaren lanak jaso ditue. Dan-danak Trianoko mendien ganekoak. Foru Aldundiak goi mailako golf zelaia egin gura dau mendiotan, «artelanez, beraz, desagertu arazo gura daben ingurua erakusten dabe», esan dau plataformak.

AEK

Balio barik, loteriako 59.281 zenbakiko partizipazio batzuk

Balio barik itzi ditu AEK-k Bilboko AEK-ren laguntzaileek koordinakundea diruz laguntzeko atararako loteriarren 59.281 zenbakiko partizipazio batzuk. 1.555 eta 1.600 arteko partizipazioak, hain zuzen. Eta ez erosteko deia zabaldu dabe.